

Gurutzearen alabak

La Congregación de las Hijas de la Cruz, con sede principal en Uztaritze (Lapurdi), es Instituto de gran raigambre en el País Vasco continental, pero con una parecida implantación en la peninsular (recuérdense, por ejemplo, sus Casas de Irún-Egiluze y Hondarribia). El siglo XX ha sido fecundo en iniciativas entre las Hijas de la Cruz.

Gurutzearen Alabak dira, nik uste, Euskal Herri osoan –Iparralde eta Hegoaldean, bietan batera– etxe-banaketa geografiko orekatu aberatsena izan duten mojak. Kongregazio gehienak bezala, hemendik kanpo jaioa, Iparraldean hasi zuten beren euskal garapena. Gerora, aldarte politikoek gogor jo zituen, eta horregatik ere Hegoaldean aurkitu zuten babesba ez ezik lur gozoa ere, ikusiko dugunez.

Kongregazioaren sorrera eta garapena

Sarritan bezala, Kongregazioaren sorrera bi gizon-emakumeren ahaleginen arteko emaitza izan zen, eta garai jakin bateko premia sozial eta eliztarrei erantzun nahirik sortutako Elkar-tea. Kasu honetan ere bi Santuren fruitua. San Andres Hubert Fournet (1752-1834) eta Santa Joana Elisabet Bichier-ena (1773-1838).

Kongregazioa sortu aurretik (1806), Andres Hubert apaizak Iraultza ondoko gorabeheri aurre egin behar izan zien, orduko elizgizon gehienak bezala, eta Nafarroako Urantzian (*Los Arcos*) bost urte eman zituen, erbesteratuta. Beraz, Kongregazioa eraiki aitzinetik eta Joana Elisabet-ekin topo egin aurretik ezagutu zuen gure Euskal Herri hau.

Joana Elisabet, lehenagotik ere –Iraultza leheritu zenetik, alegia– Bethines-en (Vienne)

Elizaren etorkizunaz arduraturik zebilen, herriko Erretoreak Konstituzio Zibila onartu zuelako, eta herritarrak Parrokiatik urrunduta zebiltzalako. Gauzak horrela, bere etxean eta etxetik ekin zion lanari, jendea bilduz, dotrina emanez, oro har isilpeko eliz lana eginez. Eta preso-aldiren bat eta epaiketarik ere jasan zuen, baina, azkenik, libre atera zen.

Iraultzako gorabehera gordinenek zailduta (*La Terreur*), bere 23 urterekin prest zegoen zeregin berrietarako, gauzezko eta isilpeko Meza-ospakizun hartan Andres Hubert ezagutu zuenean (1797). Familiaren ondasunez ere baliatuz ekin zion inguru eta haurrak eskolatu eta gaixoak ikustatzeari.

Hasierako bospasei lagunak ugarituz joan ziren, eta Elkar-tea Poitiers-eko Diozesitik han eta hemen indarrak bildu eta eginkizun berriak hartuz, harik eta 1820an garai bateko moja zisteratarren monasterio desjabetu eta hondatua (*La Puye*) handikiro berregin zuen arte. Data horretatik aurrera etorri zen zabalkunde bizkorra.

Irakurtzekoa da emakume honen biografia (M. Guillebault-ek idatzia) XIX. mendeko zenbait emakume fundatzailek egindako lanen adibide ona baita. Ez zuen beti samurra izan eskuartean zeraman egitekoa: lehenengo batean babesle onak izan zituen, baina baita une



gogorak ere, eta beti ekimenez betea ageri zai-
gu, iraupen handiko emakumea.

Ardurarik ez zen falta: Eskola txikiak eta
aurren barnetegiak, moja-gai ugari mantendu
eta hezteko, eta horrekin guztiarekin Ahizpar-
teak. Joana Elisabet hiltzean (1838), Kongre-
gazioak 633 ahizpa zituen, 117 komunitatetan
eta Frantziako 23 diozesitan.

Euskal Herriko Etxeak (1828...)

Euskal Herriko lehenengo Etxea Baionan jarri
zuten Gurutzearen Alabek (1828), eta zertxo-
bait geroago Uztaritzen hurrengoa (1829). Ez
ziren Euskal Herrira beren kasa etorri, Apezpi-
kuak deituta baizik, eta Mixel Garikoitzen lagun-
tzarik ere izan zuten. Hasieran hizkuntzarena
ahal zen moduan moldatu beharra izan zuten,
mojatara sartutako lehen bi neska euskaldu-
nen laguntzarekin.

Fundatzailea hilda gero ere Uztaritzeko
Etxeak gora egin zuen, eta gaur ere bere indar-
rean dago, noski (Nobiziategia, bertako hain-
bat neskari irekia, barnetegiak, etab.); baina hori
hasiera zen bakarrik. 2002an Arantzazun egin-
dako Erlifijosoen Histori Kongresuan, ederki
azaldu ziguten Gurutzearen Alabek Euskal Ipa-
rralde eta Hegoaldeetako historia hori.

Kongregazioak, 1902-1904. etako Frantzia-
ko sakabanaketaren aurretik, Hegoaldean genuen
Kongregazioa: Bilbon lehenengo (1859), Santurtzin
berehala (1860), eta laster Nafarroan
ere izango dute Etxerik, Tafallan adibidez
(1888).

XX. mendeko lehen erdian hegaldi zabala-
goa izango du Hegoalde honetan Kongrega-

zioak. 30 Etxetatik gora izan dira Hegoaldean
irekitakoak. Araban izan ezik, beste hiru herrial-
deetan izan dituzte halakoak: hamarren bat Biz-
kaian (Balmaseda, Ondarroa, Gallarta, Sestao...),
zortzi Gipuzkoan (Hondarribia, Errenteria, Beho-
bia, Zumarraga...) eta hamar Nafarroan (Argue-
das, Urdazubi, Milagro, Iruñea...). Urantzian San
Andres fundatzailea bizi izandako etxean jarri
ziren 1979an. Etxe handiago horien ondoan
Ahizparte txikiak ere egon dira, batez ere azken
hamarkadetan.

Bien bitartean, Gurutzearen Alabek izan
ziren Iparraldean, Angeluko Serorekin batera
(jakingo dugu hauen berri ondoko zenbaki bate-
an), Baionako Diozesiko Euskal Herrian herri txi-
kietako Eskoletan Erretoreei lagunduz lan egin
zutenak. Nolanahi ere, herri-herriko alabak
ziren, eta gure landa-herrietan estimatuak. 59
Etxe egon dira Iparraldean, denbora batez edo
gaur arte irekita, lanean.

Tokian tokiko premiei lotuta ageri zaizkigu
moja hauek, herri xumearekin, batez ere beren
lehen hamarkadetan, eta Kontzilio ostean. Tar-
tean Etxe handirik ere izan dute (gogora Uzta-
ritze, Hondarribia, edo Irungo Egiluze, bere
Nagusi-Etxe, Nobiziategi eta Gogartetxearekin).

Kongregazioa oso euskal herritarra izan da
bere demografian. Iparralde-Hegoaldeetako
1.554 neska egon dira Gurutzearen Alaben
artean, gehienbat Iparraldekoak (1.068), eta
Hegoaldekoak (486). Alde horretatik, moja-
kongregazioetako euskal-herritarrenetakoa
izango litzateke eliz elkarte.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580